



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2018KO APIRILAREN 27AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia

Etorri diren zinegotziak:
Jesus Peñagarikano Labaka
Itziar Arratibel Imaz
Jon Mikel Iglesias Otegui
Maria Iciar Jauregui Huarte

Lierni Muñoa Salaverria (Kontuhartzailea)

Idazkaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2018ko apirilaren 27an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak zirenean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkatea izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

1.2018KO APIRILAREN 13KO AKTAREN ONARPENA

2018ko apirilaren 13an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2018ko apirilaren 13an eginiko Gobernu Batzarraren akta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA:

2.-AKATS ZUZENKETA: 2018KO APIRILAREN 13KO GOBERNU BATZORDEAK **2.1 PUNTUAN HARTUTAKO ERABAKIA**

2018ko apirilaren 13ko Gobernu Batzordeak bere 2.1 puntuan 2017ko diru-laguntzen kitapenak onartu zituen. Bertako ebazpenaren bigarren puntuan taldeei eman beharreko diru kopuruak zehazten ziren.

Aipatu kopuruetan bi akats daudela jakinarazi du dagokion teknikariak, bata Sendi Ekintza pilota eskolari ematen zaion diru kopuruan, eta bestea, Belabieta Gimnasia Erritmikoko Kirol Klubari ematen zaion kopuruan.

Aipatu akordioan honakoa jartzen du:

A Urteko programak:

Sendi ekintza pilota eskola: 1.728,00 €
Gimnasia Erritmikoko Belabiera Kirol Kluba: 1.520 €

Kopuru horien ordean, honakoak dira agertu beharrekoak:

Sendi ekintza pilota eskola: 1.152,00 €
Gimnasia Erritmikoko Belabieta Kirol Kluba: 1.600 €

Jada taldeei aurreko erabakia jakinarazi zaie eta ondorioz, erabakia ezeztatu eta akatsa zuzendu beharko litzateke.

Kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA: 2018ko apirilaren 13ko Gobernu Batzordeko 2.1. puntuko ebazpenaren bigarren puntuan honakoa jartzea:

Sendi ekintza pilota eskola: 1.152,00 €
Gimnasia Erritmikoko Belabieta Kirol Kluba: 1.600 €



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

HIRUGARRENA:

3.-ESLEITZEA IBERDROLA CLIENTES S.A.U ENPRESARI ENERGIA ELEKTRIKOA HORNITZEKO KONTRATUA (FORU KONRATAZIO ZENTRALAREN ESPARRU AKORDIOTIK ERATORRITAKO KONTRATUA).

Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko foru diputatuak 2018ko martxoaren 15ean foru aginduaren bitartez, IBERDROLA CLIENTES S.A.U. I.F.Z.

A95758389 enpresarekin “Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez atxikitako entitateei energia elektrikoa hornitzeko Esparru Akordioa” burutzea ebatzi zuen.

Udal honi dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikulua araber, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Administrazio honek kontratatu beharko duen zerbitzua zenbatetsiz, gutxi gorabehera, urteko 90.041,84 euroko gastua ateratzen da, BEZik gabe.

Hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA.- Esleitzea IBERDROLA CLIENTES S.A.U. I.F.Z. A95758389 enpresari, “Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez energia elektrikoa hornitzeko esparru akordiotik” eratorritako kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan, hau da, bi urterako. Gutxi gorabeherako gastua 180.083,98 euro izango da bi urterako.

BIGARRENA.- Baimentzea eta xedatzea IBERDROLA CLIENTES S.A.U. I.F.Z. A95758389 enpresaren alde, dagokion gastua, “Energia elektrikoaren hornidura” kontusail-ekonomikoaren kargura.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

4. LAUGARRENA

4. 2018KO APIRILAREN 24KO GIZARTE POLITIKA, POLITIKA FEMINISTA ETA ANIZTASUN BATZORDEAREN IRIZPENEN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIA:

4.1 GIZARTE ZERBITZUEN ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK: 2018 URTERAKO DIRULAGUNTZA OINARRIEN ONARPENA

Idazkaritzak adierazten du ez dagoela Gizarte Politika, Politika feminista eta Aniztasun batzordearen irizpenik.

Tokiko Gobernu Batzordeak adierazten du gaia erabaki gabe gelditzen dela irizpena jaso bitartean.

4.2 INDARKERIA MATXISTA JASATEN DUTEN EMAKUMEEN ARRETA EGOKIA BERMATZEN DUEN KOORDINAZIO PROTOKOLOAREN ZERBITZUA ESLEITZEA: PROIEKTUEN AUKERAKETA PROZESUA

Idazkariak jakinarazten du 179/2015 dekretuaren arabera, Gizarte Zerbitzuetako eta Kultura zerbitzuko zinegotzi delegatuaren funtzioen artean dagoela 18.000 eurotik beherako obra, zerbitzuak eta hornikuntzak kontratatzea.

Ikusirik zerbitzu honen esleipena 12.995 eurokoa dela, Idazkariak erabaki hau Gobernu Batzordeari ez dagokiola adierazten du.

5. BOSGARRENA

5. ESLEITZEA KALEXKA ELKARTEARI, IBARRAKO HAUR, NERABE ETA GAZTEEN PARTE HARTZEA SUSTATZEKO ZERBITZUA

2018ko otsailaren 23an egindako Tokiko Gobernu Batzordeak, Ibarra haur, nerabe eta gazteen parte hartzea sustatzeko zerbitzua esleitzeko oinarriak onartu zituen.

Gutun irekierak egin ondoren, 2018ko apirilaren 9an Kontratazioarako Adituen Mahaia elkartu zen. Kalexka enpresari Ibarra haur, nerabe eta gazteen parte hartzea sustatzeko zerbitzua esleitzearen proposamena egiten dio Tokiko Gobernu Batzorde honi.

2018ko apirilaren 24an (865 erregistro zenbakiarekin) esleipena egiteko beharrezkoak diren dokumentazio guztia egoki aurkeztu ditu Kalexka Elkarteak. Aurkezturiko dokumentuen artean fidantza ezarri da, honako dokumentuen bidez: 381 seriea eta 1.448.264-4 7501-4 zenbakidun 4.170,60 euroko txeke bidez, eta Caixa Bank S.A



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

entitate finantziario bidez 9340.03.2003350-62 zenbakiarekin abalen erregistro berezian inskribatua izan da

Guztia ikusirik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Esleitzea Kalexka Elkarteari, Ibarra haur, nerabe eta gazteen parte hartzea sustatzeko zerbitzua 92.000 euroko prezioan (BEZ gabe).

BIGARRENA: Erabaki honen berri ematea Kalexka Elkarteari eta Kontuhartzaitzari (E).

6. SEIGARRENA

6.- GESTION DEPORTIVA LOIRI S.L-RI ESLEITZEA OPORRETAN EUSKARAZ ZERBITZUA

2018ko otsailaren 16an egindako Tokiko Gobernu Batzordeak, Oporretan euskaraz udaleku irekien antolakuntza eta kudeaketa zerbitzua kontratatzeko pleguak onartu zituen.

Gutun irekierak egin ondoren, 2018ko apirilaren 3an Kontratazio Mahaia elkartu zen. Gestión Deportiva Loiri S.L enpresari Oporretan euskaraz udaleku irekien antolakuntza eta kudeaketa zerbitzua esleitzeko proposamena egiten dio Tokiko Gobernu Batzordeari.

2018ko apirilaren 25ean (875 erregistro zenbakiarekin) esleipena egiteko beharrezkoak diren dokumentazio guztia aurkeztu ditu Gestión Deportiva Loiri S.L enpresak. Aurkezturiko dokumentuen artean, fidantza ezarri da 1.150 eurotako (Bankoa S.A entitate finantziario bidez 0138 0002 61 155006158-33285 zenbakiarenki abalen erregistro berezian inskribatua izan delarik).

Hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Esleitzea Gestión Deportiva Loiri S.L enpresari, Oporretan Euskaraz zerbitzua 23.000 euroko prezioan (2.300 euroBEZa gabe).



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA: Erabaki honen berri ematea Gestión Deportiva Loiri S.L enpresari, Hezkide eskolari eta Kontuhartzaitzari (E).

Eta eguneko gai-zerrendan aztertu beharreko beste gairik ez zegoenez, batzordeburu jaunak egintza amaitutzat eman zuen goizeko hamaikak eta hogeita hamasei direnean, eta nik, idazkari naizen honek, horixe egiaztatu nahi dut.